

Aurkezpena

Sekuentzia honetan ariketa hauek egingo dituzu:

- Bideo bat ikusi eta esaldiak norik esan dituen asmatu.
- Testuta irakurri eta esaldiak osatu.
- Gaiari buruz hitz egin.




Ikusi bideoa



Ikusi bideoa eta esan beheko esaldi horiek norik esan dituen.

	Beñat	June
Gurasoek irakatsitakoari jarraitzen dio.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Beganoa denez, denda ekologikoetara ere joaten da.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Bizitzan aukeratu egin behar da zein sistema babestu nahi dugun.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Denda txikiak bultzatu behar dira.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Lehen denbora gehiago zegoen erosketak egiteko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Normalean auzoko denda txikietara joaten da, baina, erosketa handiak badira, supermerkatuetan egiten ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Hipermerkatuan aukera gehiago dago.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>



Irakurri testua



Irakurri testua eta egin behean proposatzen zaizun ariketa.

Egunerokoan elikadura orekatua, garbia eta osasungarria izatea lan nekeza da. Horri eguneroko betebeharrak sortzen duten estresa, denbora libre eskasia eta nekea gehituz gero, are eta zailagoa egiten zaigu elikadurari merezi duen garrantzia ematea. Argi dago denbora gutxi izateak elikaduran eragin nabarmena duela. Lehen, erosketak egiteko, goiz osoak hartzen ziren. Gaur egun, ordea, oso denbora gutxi ematen dugu erosketetan.

Oraingo produktuen eta denda-moten eskaintza oso handia da. Herri gehienetako kaleetan ditugu betiko merkatuak, harategiak, arrandegiak, urdaitegiak.... Supermerkatuak edo hipermerkatuak ere gertu samar egoten dira. Erosi nahi dugunaren eta erosketak egiteko dugun indarraren edo denboraren arabera nora jo aukeratzeko dugu. Hala ere, merkatuko azken ikerketen arabera, biztanleriaren %



Supermerkatuek aukera handiagoa eskaintzen dute.

35ek, krisia dela medio, erosteko ohiturak aldatu egin ditu, eta lehen baino gutxiago erosten ahalegintzen da. Gure ohiturak zein diren jakiteko asmoz, kalera jo dugu, herritarrek nola erosten duten jakitera.

Donostiako Antigua auzora joan gara. Astelehen-goizeko 11.00ak dira eta jende asko dabil erosketapoltsekin Matia kalean aurrera eta atzera.

Beñat Eizagirre zarauztarra topatu dugu bertan. Beñat Filosofia masterreko ikaslea da eta unibertsitatera doa, zenbait erosketa egin ondoren. Erosterako ohituren inguruan galdetu diogu, eta zera esan digu: “Gaur egun hainbeste aukera, marka eta produktu daude... erotu egiten garela. Gurasoengandik ikasten dugunari jarraitu diot nik zenbait produktu erosterako orduan, eta, horregatik, horiek hipermerkatuan erosten ditut, baina, beganoa naizenez, denda ekologikoetara ere joaten naiz eta ahal dudanean merkatuan erosketak egiten ere saiatzen naiz. Hala ere, ez da erraza izaten hori dena egiteko denbora hartzea. Korrika eta presaka bizi gara eta errazena hipermerkatura joatea da, han erosketak oso azkar egiten dira-eta”.



Auzoko dendak eguneroko erosketa txikietarako erabiltzen ditugu

Beñatek ere, aukeran, nahiago ditu denda txikiak hipermerkatuak baino, baina ez da konformatzen denda txiki formatuarekin: “Nik denda txiki ekologikoak eta produktu beganoak saltzen dituztenak aukeratzen ditut. Egia da ondo dagoela denda txikiak babestea eta laguntzea, baina erosterakoan ere sinesten dudana hori kontsumitzen saiatzen naiz. Gaur egun oso produktu onak daudelako saiatzen naiz denda txikietan kontsumitzen. Agian garestiagoak izango dira, baina bizitzan aukeratu egin behar da: merke erosi nahi badugu, konforme; baina erosketa horiekin zein sistema babesten ari garen ere konturatu behar dugu.

Nik nahiago dut gauza batzuetan gehixeago ordaindu. Janaria oso inportantea dela ahaztu egin zaigula uste dut-eta”, esan digu.

Berak garbi du zergatik joaten den gero eta jende gehiago hipermerkatura erosketak egitera: “Lehen emakumea etxeaz, sukaldeaz eta janariaz enkargatzen zen. Egun, zorionez, indibidualak gara. Horrek ere gatazkak ekarri ditu, erosketetan esaterako. Izan ere, orain nahiko lan dugu denok ikasketekin edo lan

profesionalarekin. Lana eta soldata dezente bat eskuratzeko, sistemak etengabeko ikaskuntzara bideratzen gaitu. Horren ondorioz, jada ez daukagu astirik sukaldean aritzeko, ez dago denbora asko erosketak egiteko. Horregatik hipermerkatura joan, ordu erdi edo berrogei minuturen bueltan azkar-azkar erosi beharrekoak erosi eta aste osoko erosketak eginda”, dio Beñatek. “Hipermerkaturak janaria erraz eskuratzeko bidea da eta guztiz ulergarria da bertara jotzea, korrika eta presaka bizi gara-eta...”, zehaztu du.



Beñat Eizagirre



June Torrealdei

June Torrealdei, berriz, merkataritza-gune bateko sarreran topatu dugu. Eguerdia da eta oraindik ere jendea karro handiekin sartu eta atera dabil. Junek normalean erosketak denda txikian egiteko ohitura du: “Normalean auzoko denda txikietan egiten ditut erosketak, baina egia da, erosketa handiak badira, supermerkatu handietara ere etortzen naiz”, aitortu digu.

“Aukera izaten dudana guztietan, denda txikietara joaten naiz. Batetik, bertan ematen den tratua asko gustatzen zaidalako. Bestetik, beraien negozio propioa izanik, langileak beste era batera tratatzen dituztela uste dut. Eta azkenik, denda txikiak

babestu eta bultzatu egin behar ditugula pentsatzen dudalako”, agertu digu Junek. “Hipermerkaturak merkeagoa dela esan zaigu, baina zalantza dut merkeagoa izatea hobea izatea ote den”, esan du Junek. Hala ere, argi du hipermerkatuak zer duen ona: “Aukera gehiago dago”, ziurtatu digu.

Eta zu, nora joaten zara erosketak egitera? Zer duzu nahiago, hipermerkaturak edo denda txikiak?

Orain, lotu esaldi hauek:



- 1) egunerokoan elikadura orekatua, garbia eta osasungarria izatea...
 - 2) gure etxean, eguneroko erosketak denda txikietan egiten ditugu,...
 - 3) gaur egun oso produktu onak daudelako saiatzan naiz denda txikietan kontsumitzen...
 - 4) lehen, erosketak egiteko, goiz osoak edo pare bat egun hartzen ziren...
 - 5) aukera izaten dudan guztietan, denda txikietara joaten naiz. Batetik, bertan ematen den tratua asko gustatzen zaidalako. Bestetik, langileak beste era batera tratatzen dituztela uste dut...
 - 6) korrika eta presaka bizi gara eta errazena hipermerkatura joatea da,...
- A) eta azkenik, denda txikiak babestu eta bultzatu egin behar ditugula pentsatzen dudalako.
 - B) gaur egun, ordea, oso denbora gutxi ematen dugu erosketetan.
 - C) han erosketak oso azkar egiten dira-eta.
 - D) baina, gero, astean behin edo hilabetean behin hipermerkatura joaten gara, gainerako erosketak egitera.
 - E) agian garestiagoak izango dira, baina bizitzan aukeratu egin behar da.
 - F) lan nekeza da.

Eta zuk?

Jarri taldean eta komentatu:



- Zuek non egiten dituzue erosketak? Zergatik?
- Zein dira bakoitzaren abantailak eta desabantailak?
- Gauzak aldatu al dira?
- Zein izango da joera?

Zuzenketa-orria

Ikusi bideoa

	Beñat	June
Gurasoek irakatsitakoari jarraitzen dio.	✓	✗
Beganoa denez, denda ekologikoetara ere joaten da.	✓	✗
Bizitzan aukeratu egin behar da zein sistema babestu nahi dugun.	✓	✗
Denda txikiak bultzatu behar dira.	✗	✓
Lehen denbora gehiago zegoen erosketak egiteko.	✓	✗
Normalean auzoko denda txikietara joaten da, baina, erosketa handiak badira, supermerkatuetan egiten ditu.	✗	✓
Hipermerkaturan aukera gehiago dago.	✗	✓

Irakurri testua

-
- 1) egunerokoan elikadura orekatua, garbia eta osasungarria izatea...
- 2) gure etxean, eguneroko erosketak denda txikietan egiten ditugu,...
- 3) gaur egun oso produktu onak daudelako saiatzen naiz denda txikietan kontsumitzen...
- 4) lehen, erosketak egiteko, goiz osoak edo pare bat egun hartzen ziren...
- 5) aukera izaten dudan guztietan, denda txikietara joaten naiz. Batetik, bertan ematen den tratua asko gustatzen zaidalako. Bestetik, langileak beste era batera tratatzen dituztela uste dut...
- 6) korrika eta presaka bizi gara eta errazena hipermerkatura joatea da,...
- A) eta azkenik, denda txikiak babestu eta bultzatu egin behar ditugula pentsatzen dudalako.
- B) gaur egun, ordea, oso denbora gutxi ematen dugu erosketetan.
- C) han erosketak oso azkar egiten dira-eta.
- D) baina, gero, astean behin edo hilabetean behin hipermerkatura joaten gara, gainerako erosketak egitera.
- E) agian garestiagoak izango dira, baina bizitzan aukeratu egin behar da.
- F) lan nekeza da.